


# EUSKARA ETA LITERATURA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

ANAYA HARITZA

# MUNDUA HELBURU

## Proiektuaren deskribapena

**Mundua helburu** Anaya/Haritza argitaletxeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako duen hezkuntza-proiektu berria da. Proiektu horrek **ikaslea ikaskuntza**ren erdigunean jartzen duten gako pedagogikoak proposatzen ditu.

### Bizitzarako ikaskuntza

Hauek dira **Mundua helburu**ren ezaugarriak:

### Konpetentzietan oinarritua

Konpetentziak modu integratzailean lantzen dira. Proiektua garatuz, ikasleek eguneroko errealitateko egoeretan moldatzen ikasiko dute.

**Ikaskuntza-egoerak**

GJHetan oinarritutako ikaskuntza-egoeren bidez, arazo-egoerak planteatzen dira; arazo horiek konpontzeko, ikasleek hausnarketa eraldatzailea egingo dute, unitateetan eskuratutako ezagutzak aplikatuz.

**Konpetentzietan oinarritutako ariketak**

Ariketa horien helburua ikasleek konpetentziak eskuratzea da. Ezagutzak hainbat testuingurutan aplikatzea sustatzen dute, analisiaren, arrazoiketaren, esperimentazioaren, argumentazioaren edo interpretazioaren bidez. Ikasleak eguneroko erabaki-hartzeetarako prestatzen dituzten ariketak, hain zuzen ere.

**Konpetentzien araberako ebaluazioak**

Irteera-profilaren eskuratze maila ebaluatzeko eta ikaskuntza-prozesuari buruz hausnartzeko diseinatutako ebaluazioak.

### Konprometitua

Ikasleek eginkizun aktiboa dute proiektuan, eta eginkizun hori ez da arlo akademikora mugatzen. Izan ere, beren familia-, gizarte-, kultura- eta natura-ingurua eraldatzeko lagungarriak diren proposamenetan inplikatuko dira, arlo guztietan jasangarriagoa eta konprometituagoa den mundua lortzeko.

**Garapen Jasangarrirako Helburuak**

Ikaskuntza-egoerak eta beste ariketa batzuk GJH batekin lotuta daude; horien helburua hau da: ikasleek kontzientzia hartzea eta gogoeta egitea, beren ohiturak, jarrerak eta jokabideak aldatzeko.

**Orientazio akademikoa eta lanbide-orientazioa**

Bokazioak pizteko edo detektatzeko, eta ikasleei heziketa- eta lanbide-ibilbidea erabakitzen laguntzeko, bakoitzaren trebetasunak eta interesak kontuan hartuz.

# Proiektu digitala

IKT-plana eta proiektu digital berria ditu **Mundua helburu** proiektuak.
Konpetentzia digitalak lantzeko eta eskuratzeko beren-beregi diseinatutako liburu digitalak ditu.

+ **Informazio gehiago 20. orrialdean**

## Inklusiboa

**Mundua helburu** proiektua hezkuntza inklusiboaren printzipioekin konprometituta sortu da, baita ikasle guztientzat ikaskuntza-baldintza hobeak sortzearekin ere. Horretarako, proiektuak honako hauek ditu:

**IDU jarraibideak**

**Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala**ri buruzko jarraibideetan oinarrituz, proiektuak informazio guztia eskaintzen die irakasleei, ekintzarako, adierazpenerako, irudikapenerako eta inplikaziorako aukerei dagokienez.

**Inklusiorako baliabideak**

**Mundua helburu**k mota askotako baliabideak jartzen ditu irakaslearen eskura: bideoak, audioak, baliabideak, antolatzaile grafikoak, ariketa interaktiboak...

**Funtsezkoena**

Proiektuaren baliabide inklusibo honek oinarrizko ikaskuntza-ezagutzak identifikatzen ditu, ikasle guztiek irteera-profila eskuratu dezaten eta irakasleak erritmoa eta sakontasuna egokitu ditzan.

## Diziplinartekoa

**Mundua helburu** diziplinarteko proiektua da berez; izan ere, **atazak** eta **proiektu txikiak** ditu, zenbait arlotan eskuraturiko ikaskuntzak erabiltzeko eta askotariko testuingurutan modu integratuan aplikatzeko.

## Metodologia aktiboak

**Mundua helburu** proiektuak talde-lana eta espiritu kritikoa sustatzen dituzten metodoak, teknikak eta estrategiak proposatzen ditu. Lan egiteko modu horrek bizitza errealeko egoeretarako prestatzen ditu ikasleak. Aipatzekoak dira **lankidetzako ikaskuntza, hezkuntza emozionala, pentsamenduaren garapena, ekintzaileetzaren kultura** eta **hizkuntza-plana.**

# IKASLEAREN MATERIALA



# DBH 1




ISBN: 987-84-143-0520-1

# DBH 3




ISBN: 987-84-143-0524-9

DBH 2 eta DBH 4

2023/2024 IKASTURTEAN EGONGO DIRA ESKURAGARRI

Hablamosdeeducación

DBH 1 DBH 3

Sartu **www.hablamosdeeducacion.es** webgunean eta ikusi gure materialen aurrerapenak

# DESKRIBAPEN OROKORRA

**Euskara eta literatura** arloko liburuak XXI. mendeko ikasleen errealitatea kontuan hartuz diseinatu dira. Izan ere, gure proiektuak ikasleei aukera ematen die gero eta anitzagoa den gizartean aurrera egiteko, eta ezinbestekoak diren gaitasunak eta trebetasunak proposamen erakargarri eta motibagarri baten bidez eskuratzeko.

Gure liburuek ezaugarri hauek dituzte:

- Curriculuma **zehatz** garatzen dute, mota askotako ariketen eta adibideen bidez.
- **Konpetentzietan oinarrituriko ariketak** dituzte, zailtasun maila askotakoak.
- **Hizkuntza-edukiak** sakon lantzen dituzte, ikasleek euskara maila egokia eskura dezaten.
- Arreta berezia jartzen dute **komunikazio**an, ahozkoan zein idatzizkoan.
- **Espiritu kritikoa** sustatzen dute, gogoeta egiteko ariketen bitartez.
- **Ebaluazioa** egiteko aukerak eskaintzen dituzte.
- **Proiektu digital**aren lizentzia daukate.




Edizio bakoitza hiru liburuxkak osatzen dute, motxilan pisu gutxiago eramateko.



Liburuek 9 unitate dituzte

# EZAGUTU LIBURUAK

## UNITATEAREN HASIERA

Hasierako orrialde bikoitzak unitatearen ikuspegi orokorra ematen digu. Unitatearen ardatza izango den gaia aurkezten da, testu motibagarri baten bidez. Gai hori **Garapen Jasangarrirako Helburu** (GJH) edo **gaurkotasun handiko eduki** batekin lotuta dago. Unitatean ikasi beharreko edukiak eta ikasleen hurbileko errealitatea lotuz, **ikaskuntza esanguratsua** lortuko dugu.




Unitateko edukirik aipagarrienak adierazten dira, azalpen-testu labur eta irudi erakargarrien bidez.

«Hausnartu eta erantzun» ataleko galderak egokiak dira ikasleen jakin-mina pizteko eta unitateko gaiarekin lotura egiteko.






## 1. BLOKEA: KOMUNIKATU

_IRAKURGAIA. Testu-tipologia aberatsa lantzen da DBH osoan zehar. Testu-aukeraketa bikaina egin da, ikasleek kalitatezko literaturaz gozatzeko, eta beste testu mota asko interpretatzen ikasteko.



«Ulermena» eta «Ikasi hitzak» ataletan, ikasleek irakurgaiari buruz hausnartu, eta testuaren gaiarekin lotutako hitzak landuko dituzte.



Irakurgaia berotzeko «Zer irakurriko duzun» azpiatala dago. Gainera, irakurgai guztiak entzungai daude webgunean.

_KOMUNIKATU. Ikasleek komunikazio-gaitasun eraginkorra izateko behar dituzten edukiak lantzen dira atal honetan. Lanketa hori progresiboa da, lau mailetan zehar, sakontasunari dagokionez.



Ikasleek azalpen argiak eta zehatzak aurkituko dituzte, edukiak modu eraginkorrean eskuratzeko.

Ariketa askoren bitartez, komunikazio-ezagutzetan sakonduko dute.

**_KOMUNIKAZIO-LANTEGIA.** Komunikazio-trebetasunak indartzeko eta sakontzeko atal berezia. Unitateko gaiarekin eta «Komunikatu» atalean landutako testu-tipologiarekin lotutako proposamen erakargarria eta motibagarria.




Ahozkotasuna lantzeko eta lantegian proposatutako gaiari buruz hausnartzeko ariketak.

Abiapuntua benetako komunikazio-egoera bat eta entzungai bat dira.




Galderen bitartez, entzungaiaren ulermena landuko dugu.

Lantegiaren amaieran, ekoizpenerako proposamena dago: ikasleek, taldeka, komunikazio-trebetasunak praktikatzeko ataza izango dute.

**_HIZKUNTZA ETA GIZARTEA.** Hiruhileko bakoitzaren lehen unitatean dagoen atal berezia. Hizkuntzen gaineko kontzientzia pizteko hainbat ariketa dira, eduki soziolinguistikoak modu progresiboan lantzeko.



Edukietan sakontzeko eta informazioa bilatzeko ariketak, taldeka hausnartzeko eta eztabaidatzeko proposamenak...



Azalpen argiak eta motibagarriak, mota askotako baliabideez hornituta: mapak, dokumentu grafikoak eta historikoak, taulak, eskemak...

## 2. BLOKEA: EZAGUTU HIZKUNTZA

_GRAMATIKA. Gramatika-edukiak modu progresiboan lantzen dira DBH osoan zehar, mailaz maila ikasitakoa berrikusiz eta eduki berrietan sakonduz. Hizkuntzaren oinarrizko unitateetatik hasita, ikasleek euskararen sistema ulertzea eta barneratzea nahi da.



Edukiak modu bisualean aurkezten dira, hainbat motatako antolatzaile grafikoak erabiliz: armiarma motakoak, antolatzaile hierarkikoak... Ikasleek gramatika-edukiak hobeto ulertzea eta barneratzea nahi da.



_LEXIKOA. lexiko-edukiak lantzen dira, baita hiztegia erabiltzen ikasteko jarraibideak praktikoak ere.



_ORTOGRAFIA. Ortografia-edukiak modu progresiboan lantzen dira. Ariketa sorta zabala dute ikasleek eskura, etengabe trebatzea baita ortografia barneratzeko modurik egokiena.

Orrialde askotan dauden azalpen osagarrietan, edukiak hobeto ulertzeko jarraibideak daude.





Liburuaren amaierako eranskinetan, ortografia-arauak berrikusteko taulak, adibideak... daude.

## 3. BLOKEA: EZAGUTU LITERATURA

_1. ZIKLOA. Literaturarekin lotutako ezagutza orokorrak lantzen dira DBH-ko lehen bi mailetan: literaturaren jatorria, literatura-generoak...



_2. ZIKLOA. DBHko azken bi mailetan, ikasleek bidaia egingo dute euskal literaturaren historian zehar. Euskal klasikoak ez ezik, gaur egungo idazle nagusiak ere ezagutuko dituzte. Horrela, euskal literaturaren ikuspegi orokorra izango dute.

Azalpen teorikoak ez ezik, literatura-testuak irakurtzeko eta aztertzeko ariketak daude atal honetan.







Ahozko literatura eta bertsolaritza maila guztietan lantzen dira.

**_LITERATURA-DOSIERRA.** DBHko lehen zikloan literaturaren arloko ezagutzak sakontzeko proposamena dago: bitxikeriak, idazle aipagarriak…


Literatura-dosierra

Prosa poetikoa: genero berezia

Bazkalondoko loaldia

Literatura-dosierra

Ezagutu idazle izandako lehen emakumea

Safo Lesboskoa

Konpetentzietan oinarritutako ariketak, lankidetzan aritzeko proposamenak, informazioa bilatzeko eta edukietan sakontzeko ariketak…

**_TESTU-IRUZKINA.** DBHko bigarren ziloan euskal literaturako testuak sakonago lantzeko aukera izango dute ikasleek. Aro eta literatura-genero guztietako testuak lantzen dira.


Testu-iruzkina

Euskaltzaindia eta «g»

Testu-iruzkina

Arrain-saltzaileak

Testu bat landuko dugu, unitatean landutako euskal idazle batena.

Testu-iruzkina bideratuta dago, ikasleek lana modu mailakatuan egin dezaten: testuaren ulermena, testuaren ezaugarri formalak aztertzea eta hausnarketa-galderak.

## UNITATEAREN AMAIERA

Unitatearen amaierako atalean, ikasleek aukera izango dute unitatean zehar ikasitako edukiak berrikusteko eta haietan trebatzeko.



**DBHko 1. eta 2. mail**etan, atalak orrialde bakarra du; bertan daude berrikuspen-ariketa guztiak.

**DBHko 3. eta 4. mail**etan, atalak bi orrialde ditu.

Gramatika-edukiak berrikusteko eskema eta antolatzaile grafikoak.

Berrikuspen-ariketak



Eduki soziolingustikoak berrikusteko atal berezia, zenbait unitatetan.

# ITZALA UZTEN DUTEN ERRONKAK

## KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO PROPOSAMENA

**Itzala uzten duten erronkak** konpetentzietan oinarritutako proposamena dira. Hiru ikaskuntza-egoera proposatzen dira, hiruhileko bakoitzerako bat:

- Ezaguerak, jarrerak eta trebetasunak sustatzeko pentsatuta daude.
- Konpromisoa dute Garapen Jasangarrirako Helburuekin.
- Ikasleen mundu errealarekin eta esperientziekin lotuta daude.



**Hiruhilekoaren hasieran** erronka aurkezten da, testu motibagarri baten bidez. Egoeraren ikaskuntza-segida ere proposatzen da.



**Unitate bakoitzaren hasieran** unitate bakoitzari dagozkion segidaren urratsak daude.

**Unitate bakoitzaren amaieran** unitateko ikaskuntza-egoeran egindako aurrerapenari buruzko hausnarketa dago.



**Hiruhilekoaren amaieran** erronkaren portfolioa dago.

# IRAKASLEAREN MATERIALA



# PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK




DBH 1




DBH 3

**Proposamen didaktikoa** berebiziko baliabidea da irakaslearentzat; izan ere, eguneroko lana antolatzen eta liburuei etekin handia ateratzen lagunduko dio. **Mundua helburu** proiektuaren proposamen didaktikoetan, irakasleak baliabide hauek aurkituko ditu:

- Unitate bakoitzaren ezagutzak, eskema bidez adierazita.
- Unitate bakoitzaren deskribapena.
- Ariketa guztien soluzioak.
- Komunikazio-lantegien audioen testuak.
- Mota askotako metodologia-iradokizunak, proiektuaren gakoak aplikatzeko orientabideak...





# IRAKASLEAREN WEBGUNEA

**www.anayaharitza.es** webgunean, irakasleak **Mundua helburu** proiektuak eskaintzen dituen baliabide osagarri guztiak aurkituko ditu:

## ANIZTASUNA KONTUAN HARTZEA ETA INKLUSIOA

Gure gizartea gero eta anitzagoa da; horrenbestez, ikasgelan ere gero eta aniztasun handiagoa aurkituko du irakasleak. Ezinbestekoa da aniztasun horri ahalik eta modurik eraginkorrenean erantzutea; **Mundua helburu** proiektuak hiru fitxa mota eskaintzen ditu horretarako:



### Curriculuma egokitzeko fitxak

Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei laguntzeko fitxak dira: ikaskuntza-arazoak dituzten ikasleak, hezkuntza-sisteman berandu hasitakoak, Arretaren Faltaren Nahastea eta hiperaktibitatea dutenak, Autismoaren Espektroko Nahasmena dutenak...

Fitxa hauek sortzeko, mota askotako metodologia-egokitzapenak egin dira. Horrela, curriculumeko edukiak ikasle guzti-guztien eskura jartzen dira.

### Indartzeko fitxak

Unitatean zehar ikasitako ezagutzak praktikatzea da fitxa hauen helburua. Edukiak indartu behar dituzten baina hezkuntza beharrizan berezirik ez duten ikasleei zuzenduta daude.






### Sakontzeko fitxak

Ezagutzak eskuratu arren edukietan gehiago sakondu nahi duten ikasleekin erabiltzeko fitxa egokiak dira hauek. Oinarrizko konpetentzietan sakontzen jarraitzeko aukera ere ematen dute.

## IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

Irakurritakoaren ulermena lantzea eta ikasleen ulermen maila hobetzea gure proiektuaren oinarrizko bi zutabe dira. Hori dela eta, irakasleak irakurritakoaren ulermena lantzeko bi fitxa aurkituko ditu unitate guztietan.




## EBALUAZIOA

Bi motatako ebaluazio-probak daude:




**Ezagutzak ebaluatzeko probak**

Unitateko edukiak ebaluatzeko tresna paregabea. Hainbat ariketaren bidez ebaluatzen dira edukiak. Unitate bakoitzak bere ebaluazioa du.




**Konpetentzien araberako ebaluazioak**

Oinarrizko konpetentzietan sakontzeko ebaluazioak. Ikasleek ezagutzak aplikatuko dituzte eguneroko komunikazio-egoeretan. Unitate bakoitzak bere ebaluazioa du.

## PROGRAMAZIOA

Irakasleak ikasturteko programazioa du eskura webgunean, PDF eta Word formatuetan. Unitate guztien ebaluazio-erregistroak ere eskaintzen dira.

# PROIEKTU DIGITALA






**Edudynamic** Anaya/Haritzaren proiektu digital berria da. Ikasturteko eduki guztiak barne hartzen dituen eta edozein plataforma eta gailutara egokitzen den proiektu digitala da, hain zuzen ere. Interaktiboa, moldakorra eta trazagarria: Edudynamic da XXI. mendeko ikasgelaren beharrizanei erantzuteko behar duzun proiektu digitala.

## NOLAKOA DA EDUDYNAMIC?

- **Intuitiboa.** Zuk eta ikasleek erraz erabiltzeko modukoa.
- **Deskargagarria.** Aukera ematen du Interneteko konexiorik gabe lan egiteko eta gailu batean baino gehiagotan deskargatzeko.
- **Gailu anitzekoa.** Edozein gailu motatan (ordenagailuan, tabletan, *smarphone*an…) egokitzen eta ikuskatzen da, pantailaren edozein tamaina eta bereizmenetan.
- **Sinkronizagarria.** Erabiltzaileak egiten dituen aldaketak berez sinkronizatzen dira, lan egiteko erabilitako edozein gailu konektatzean.
- **Unibertsala.** Bateragarria da ikastetxeetan gehien erabiltzen diren sistema eragileekin, ikaskuntzako inguru birtualekin (IIB) eta hezkuntza-plataformekin (LMS).

PAPEREZKO LIBURUAREN ERREPRODUKZIOA BAINO ASKOZ GEHIAGO.

# KONPETENTZIA DIGITALA ESKURATZEKO ARIKETAK

Gure proiektuan mota askotako baliabideak daude, ikaskuntza-prozesua aberasteko eta edukietan sakontzeko.

## ARIKETA INTERAKTIBOAK

Unitateko edukietan trebatzeko ariketa digital interaktiboak.







## BIDEOAK, AURKEZPENAK ETA AUDIOAK

Ikaskuntza-prozesua aberasteko baliabidea interaktiboak.

Unitate guztien hasietan, **«Ireki ikuspegia»** izeneko bideoa dago; unitateko gaia aurkezteko eta irakasleen jakin-mina pizteko proposamen erakargarria da.







Hizkuntza- eta literatura-edukiak sakontzeko **bideoak, aurkezpen interaktiboak, audioak...**

## ESKEMAK ETA AZALPEN OSAGARRIAK

Edukiak hobeto ikasteko baliabide osagarriak.




Eskema interaktiboak
eta argigarriak.




Literatura-edukiak indartzeko baliabideak:
eskemak, infografiak, literatura-testu
osagarriak...

## EBALUATZEKO ARIKETAK

Trazagarriak diren ariketak eta proba interaktiboak, irakasleak ikasleen bilakaeraren jarraipena egin dezan.



Ulertu,
errespetatu
eta eraldatu
zure ingurua.

Zurekin
ALDATZEN GARA

ANAYA HARITZA

Deitu iezaguzu:

913 933 933

www.anayaharitza.es

**Hablamosdeeducación**

hablamosdeeducacion.es

9229277

8 421728 560478

ANAYA HARITZA

PAPER-ZUNTZ ZIURTATUA

Argazkiak: 123RF (Dolgachov; Gorodenkoff; Stockbroker).